# BARREN

1999ko azaroaren 19a
VII. urtea - 299. zkia
ELGOIBARKO ASTEKARIA

**ZENBAT BURU**
Andoni Segundo

**ERREPORTAJEA**
Atzerrian lanean dauden elgoilaartarrak

**GEHIGARRIA**
TxikiBARREN

**BERBETAN**
Iñaki Agirre, *Ongarri Zine* *Klub-eko kidea*

**KIROLA**
Egoitz Mora Espainiako Judo txapelduna

**KULTURA**
Benito Lertxundiren kantaldia





Azaroaren 25etik aurrera

## Ongarriren zine kluba berriz ere martxan

# TRUK
TABERNA

San Frantzisko, 26 • Tel. 943 74 26 21

Astelehenetik ostiralera goizeko 8:3Oetatik aurrera zabalik.
Astebukaeratan goizeko 10:00etatik aurrera





BARRA OSTEAN AURPEGI BERRI AK TOPATUKO DITUZU

Gosariak
Pintxoak
Kazuelitak
KaFeak eta bolleria



Gure taberna artelan desberdinen erakustoki bihurtu nahi dugu. Beraz, zure artelanak erakutsi nahi badituzu deitu **943 74 26 21** teleFonora.

*EQOTEKO fr11151141* **a4** *Q1k0 APAZTA TOPATLIKO* D1/21/
*ELOWARTIK* **IRTEN** *OEE.*



ANDONI SEGUNDO

# Euskal eskolatikastas publikoa

Azken urte hauetan arlo desberdinetan aldaketa berriak eta sakonak ari dira gertatzen. Guztiak norabide berdinerantz zuzentzen dira, Euskal Herria bere osotasunean garatzera, hain zuzen ere, urteetako liskarrak gaindituz eta bide berriak joffatuz. Zeregin honetan gero eta sektore zabalagoek hartzen dute parte, eta ondorioz, mugimendu eta hitzarmen berriak sortu dira: *Liz,arra-Garaziko* adierazpena, presoen aldeko ekimenak, euskal sindikatuen elkarlana, bermatzen ari den Udalbiltza, Kontseilua-Bai *Euskarari* etab.

Hala ere, hezkuntza munduan ez dira aldaketa horiek isladatzen. Bi sareak, publikoa eta pribatua, jaiotze-tasa eta matrikula dela-eta, inoiz baino urrunago daude elkarrengandik. Bakoitzaren proiektuak gero eta bereiztuagoak izaten dituztelarik, bien artean muga gaindiezina balego bezala. Dena dela, hau ez da beti horrela izan. Sare publikoan lanean hasi nintzenean, ikastola neurri haundi batean gure erreferentzia zen, ez bakarra, baina bai garrantzitsua eta ez euskeraren aldeko lanagatik soilik, baita berrikuntza pedagogikoari zegokionez ere. Garai hartan, nire lan-bizitzan zehar bizi izan dudan esperientzia politenean bezain emankorrenean parte hartu nuen. Elgoibarko lau eskoletako irakasleok mintegi bat osatu eta bultzatu genuen, elkarrekin aritu ginen ereduen arteko zailtasun eta desberdintasun guztiei aurre eginez, eta koordinaketa aurrera eramanez.

Zoritxarrez, egoera zeharo aldatu da eta txaffera jo du bereziki ikastola batzuek publifikotasunaren bidea hartu zutenetik. Oraindik zauri batzuk guztiz sendatu gabe daude eta izteko bide bakarra hausnarketa sakona egitea eta ausardiaz jokatzea da. Horretarako, lehenengo urratsa bi sareek egindako lana elkarri onetsi eta aintzakotzat hartzea litzateke. Lehen aipatu dut ikastokri zor dizkiogun gauzak eta beste batzuk ere aipa ditzaket, besteak beste, euskal kulturaren aldeko lana, egitura nazionala bultzatzea... Baina, zeinek uka dezake gaurko eskola publikoak euskera eta euskalduntze prozesuaren aIde egin eta egiten jarraitzen duen lana? Eta zein da benetan guztion eta guztiok nahi dugun Euskal Eskola Publikoa? Nork eramaten du gaur egun Elgoibarko herri-integrazioaren aldeko pisu haundiena? Nork...? Izan ere, eskola publikoak kalitatea eta berrikuntzaren alde egin duen ahalegina izugarria izan da. Zoritxarrez merezi duen gizarteonespena jaso ez arren nire ustez.

Orduan, zer egin? Gaurko errealitatetik abiatu beharko dugu, eta Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema propioa eraikitzen hasi behar dugu. Sistema horren zutabeak ikastolak eta ikastetxe publikoak izan behar zuten, baina ikastolak norabide hon̄etarantz mugitzen ez badira, gero eta klasistago bihurtzeko arriskuan egongo dira eta Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko lanean sare publikoaren barrutik jardun beharko dugu. Penagan̄ia izango da, administrazio- egiturak inposatzen digun zatiketa gainditzeko borondaterik ez azaltzea. Eskola hitzarmena bultzatu behar dugu sektore guztien partaidetzarekin, guztion indarrak behar baititugu; Iurraldelasunean, euskalduna izatean, publikotasunean, kudeaketa demokratikoan, aniztasunean, integrazioan, laikotasunean, hitz batean esanda, kalitatezko euskal eskolan oinarrituko den eskola lortzeko.

Muginnenduak hasita daude. Hipokresiak aparte utzita, bada gat̄aia teoriatik praktikara pasatzeko, inplikatzeko.

Ekin diezaiogun, ba!

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, plurattasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nald duena aukeratzen du.

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BELUEN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGO1BAR
Tz 943 74 41 12
Publizitatea:
1.1 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.i hardun.com/barren

| | |
|---|---|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTZAILEA | Elgoibarko Udala |
| KAZETARIAK | lon Eugi, Asier Orbea |
| PUBLIZITATEA | Maitane Cid |
| MAKETATZAILEA | Bea Ansola |
| ADMINISTRAZIOA | Amaia Martin |
| GERENTZIA | Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste. |
| KOLABORATZAILEAK | Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin bominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, lon Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Ainlzane Larrea, lon Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre. |
| AzALExo ESALDIA | Gotzon Garateren liburutik |
| BANAKETA ARDURADUNA | Imanol Larrañaga |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop. E. |
| TIRADA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1139-1855 |

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



em~sa

gizarte-ekintza
obra sorial

1DANOBAT

J-COUTI
GRUPO DANOBAT




## Lagan 121(eitzello laapostu 112a2, langabelu gizarte soltiala.

1996, 100 herri erakunde baino gehiagok honako ideia hau proposatzen dio euskal gizarteari: langabeziari eta pobreziari amaiera ematea Eskubide Gutun gizako lege baten bidez egungo lana eta aberastasun soziala banatuz. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Gobernuak orduan eman zuen erantzuna honakoa izan zen, alderdi politikoei bakarrik zegokiela legeak lantzea eta ez herritarrei. Demokrazia bahiturik eduki nahi zuten Parlamentuetan eta, hura kaIera ateratzearren Herri Legegintza-Ekimen bat antolatzea erabaki genuen, instituzio horiek, gogoz kontra bazen ere, Gizarte Gutuna eztabaidatzera behartzeko.

**1997,** legeak EAEn 30.000 eta Nafarroan 7.000 sinadura behar bezala egiaztatuak biltzea exigitzen bazigun ere, 100.000 sinadura bildu genituen, bi lurraldeetan batutakoak bilduz. Horrela, euskal historiako lehen Herri Legegintza-Ekimena burutu genuen.

**aPobreziaren** mugetan ozta-ozta bizi diren 180.000 langabetuez mintzo gara. Jakina da horietako gehientsuenak gazteak (%32) eta emakumeak (%24) direla.

■ Enplegurik ez duen (inork lan egiten ez duen) familien kopurua 45.000ra heltzen da, eta lau lag,unetik batek baino ez du jasotzen gizarte prestazioren bat.

ff Aldi baterako kontratuei dagokionez, guztizko lan-kontratazioaren %93ra iristen dira. Horietatik %24 denbora zatizko lana da, eta %21a ETTren baten bitartez egiten da.

■ Enpresen irabaziak, ostera, soldatak baino 25 bider gehiago hasi dira azken 3 urteotan.

■ Desenpleguagatiko INEMen estaldurak Euskal Herriko 50.140 pertsonarengana baino ez dira iristen, langabezian dauden gainerako 130.000 lagun babesik gabe geratzen direlarik, eta probeziaren mugaren azpitik bizi diren 45.000 familiatik, 16.000k baino ez du kobratzen Birgizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera.

Langabezia eta pobreziarekin bukatu gura bada Eskubide Gutun bat **behar da:**

m Aparteko orduak amaituko dituen legea.

■ Erretiroa 60 urtera aulTeratuko duen legea.

■ Laneguna asteko 32 ordura progresiboki murriztuko duen legea administrazioan, eta 35 ordura pribatuan.

■ Gizon zein emakume langabetuei Gizarte Soldatarako eskubidea aitortuko dien legea.

■ Gizarte Soldataren zenbatekoa Lanbidearteko Gutxieneko Alokairuan finkatuko duen legea.

■ Pentsio guztiak Lanbidearteko Gutxieneko Alokairu horretaraino osatuko dituen legea.

Borrokak baizik ez du ordaintzen. Zuen partehartzea eskatzen dizuegu Elgoibartik hurrengo larunbatean, hilak 20, goizeko 11:30ean igaroko den solidaritatezko ibilaldian. Mugi hadi!

Elgoibarko Giza Eskubideen Plataforma.


BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.

## KEXAK

• **Herritar batek honako kexa hau bidali digu argazki eta guzti: "Juan** Mugerza kalean (`Pista Beltza' moduan ezagunagoa) dauden **kontenedoreak barruan zaborra botatzeko dira.** Argazkian ikusi daitekenez, norbaiti zaborra lurrean lagatzea kontenedore barruan sartzea baino erosoagoa iruditu zitzaion, nahiz eta ezkerretik hasita, lehen kontenedorean bazegoen oraindik tokirik. Tamalgarria da benetan, eta ez da lehenengo aldia izan. Hau ez al da bada gure herria eta gure etxea? Dirudienez batzurentzat garbitasuna etxe barrurako kontua bakarrik da".





• Herritar batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu: "Ubitarte **kaletik Trenbide kalera kotxez irteteko stop-a (argazkian agertzen dena) oso arriskutsua da. Izan ere, autoak aparkatzeko lekua espaloiz aldatu dute.** Aparkatutako auto hauek ikusmena galerazten dute, eta oso zaila da kotxerik datorren edo ez ikustea. Ispilu bat jarri dutela badakit, baina ez zait nahikoa denik iruditzen. Izan ere, azken egunotan istripu bat baino gehiago izan da puntu horretan eta ezer larriagorik pasa aurretik zerbait egin behar dela uste dut".

• Herritar bat zenbait gidarik duten etTespetu faltaz kexatzera etorri zaigu, "Plaza **Txikiko aparkalekuan sartzen diren gidari batzuek, eskubitik joan beharrean, hau da, erlojuaren orratzen aurkako norabidean, zuzenean aurrera egiten dute** ezkerretik aparkaleku bat ikusi dutela-eta. Ohitura hau legearen aurkakoa izateaz gain, arriskutsua da".

## TXALOAK

• Emakume batek plastikozko eta brik-ezko ontziak birziklatzeko kontenedoreak jarri izana txalotu nahi du. "Birziklaia oso garrantzitsua da, ingurugiroarentzat oso mesedegarria baita. Horregatik **zenbat eta zabor gehiago birziklatzeko aukera izan, hobe. Hala ere kontenedore berri hauei akats txiki bat antzeman diet, izan ere, ontziak sartzeko duten ahoa txikiegia da,** eta ontziak banan banan botatzen denbora asko galtzen da".





# Atzerrira
# lan bila

*Gaur egun ikasle askok bukatzen dituzte beraien ikasketak atzerrian, eta asko dira lana ere atzerrian topatzen dutenak. Europar Batasuneko mugak desagertu zirenetik, gainera, oso arrunta da elgoibartarrak Ingalaterran, Suitzan, edo Frantzian lanean aurkitzea. Baita Mexiko, Venezuela edo urrunagoko herrialdetan ere. Jose Ignacio Leon elgoibartarra, adibidez, Mallorkan ari da lanean eta Bego Martin, berriz, Dublinen (Irlandan). Guk beraiekin atzerrian lan egiteak dituen abantaila eta desabantailen inguruan hitz egin dugu.*

## Elgoibartik Mallorkara

Jose Ignazio Leon 23 urteko gazte elgoibartarra Turismo ikasketak bukatzera joan zen Madrilera. Ikasketak bukatu zituenean, Madrileko hotel bateko harreran topatu zuen lana. 6 hilabeteko kontratua amaitu zitzaionean, ordea, hoteleko langileen artean ezagutu zuen neska bafen bitartez, Mallorkan animatzaile moduan lan egiteko aukera sortu zitzaion. Ezer hoberik ez zuela eta, moletak egin eta Mediterraneo aldera joan zen, 6 hilabete pasa ditu furisten oporraldiak atseginago egiten efa senideak bisitatzeko egun batzuk libre hartu dituenez, berarekin hitz egiteko aukera aprobetxatu dugu. "6 hilabete egin ditut hotel bateko animatzaile moduan eta orain beste 3 hilabete egingo ditut beste hotel bcttean, Momentuz gustora nago, lan honek, gainera, badu nire ikasketekin erlaziorik. Nolabait esatearren, lan originala efa artistikoa da. Gau eta egunez aritzen gara lanean, egunez kirol jarduerak prestatuz, eta gauez, berriz, mila eratako ikuskizunak antolatuz. Uneoro pozik agertu beharra izafen da zailena, egun txarrak ere izaten baiditur. Bera egon den hotelean ingelesak, eskoziarrak eta irlandarrak zirela nagusi esan digu, eta ingelesa praktikatzeko aukera aproposa izan dela. "Ingalaterran egotea bezalcrkoa da. Palmako irlaren iparraldean egon naiz, 'Puerto de Alcudia' herrian hain zuzen. Oso gune turistikoa da eta atzerritarrez gainezka dago".

Jose Ignazion berdin dio lan egiteko noraino mugitu behar duen, "gaztetatik izan dut Elgoibartik irtetzeko gogoa eta Turismo karrera egitea nire asmoak betetzeko aitzakia hoberena izan zen. Izan ere, karrera hau egiten dugunok, hasieratik dakigu oso zaila izango dela Euskal Herrian lana bilatzea. la derrigorrezkoa da kanpora joatea. Hala ere, urte batzuk gehiago banitu beste pentsakera bat izango nukeela uste dut, gaztaroan leku eta gauza berria k ezagutzeko irrikitan egoten baikara". Jose Inazioren iritziz europarrei gutxiago kostatzen zaie jaioterria utzi eta lan bila kanpora joatea, "ohituago daude eta hegazkina hartzeko ez dute birritan pentsatzen, gu, berriz, jaioterriari lotuagoak gaude".

> "Europarrak lan bila kanpora joatera ohituagoak daude. Gu, berriz, jaioterriari Iotuagoak gaude".



*Jose Ignacio Leonek animatzaile moduan egiten du lan Mallorkako hotel batean. Hainbat ekintza antolatzen ditu turistek ongi pasa dezaten asialdi denhoran. Argazkian, haur irlandarrez inguratuta ikusi dezakegu.*



# Elgoibartik Dublinera

*Bego Martin duela zazpi urte joan zen Elgoibartik Dublinera. Bertan, enpresa bateko salmenta departamentuan topatu zuen lana, eta irlandar bizimoduan erraz integratzea lortu du.*

Bego Martin 27 urteko elgoibartarra duela 7 urtetik bizi da Dublinen (Irlandan). Gaur egun, Creative izeneko enpresa bateko salmenta departamentuan egiten du lan, multimedien alorreko enpresa batean, alegia. Ingelesa hobetzeko eta leku berriak ezagutzeko asmoarekin joan zen Bego Dublinera, "sei hilabetetarako joan nintzen, baina hemen 7 urte pasa ondoren, oso zaila ikusten dut berriz ere Elgoibarrera itzultzea. Eigoibar txiki geratu zait eta gauza gufxi egiteko aukera eskaintzeaz gain, lana topotzeko aukera gehiago daudela Dublinen uste dut. Hona etorri baino lehen, hainbat lanetan saiatu nintzen Elgoibarren: umiak zaintzen, restaurante batian... lan gutxi zauan momentua tokatu zitzaidan eta frlandara etortzeko beste arrazoi bat izan zen. Dublinen oso bestelako egoera aurkitu nuen, lan mordoa dago eta piska bat saiatuz gero, aukera onak eskura daitezke". Begok oso argi du gaur egungo bizimoduan lana topatzeko batera edo bestera mugitu behar dela. Bere esperientzia pertsonala da adibiderik garbiena. Gauzak oso ondo irten zaizkio eta ez da damutzen duela 7 urte hartutako erabakiaz, "Oso gustora bizi naiz hemen, ingelezaz gain italiera eta alemana ere ikasi ditut, eta baita enpresariales antzeko karrera bat bukatu ere, denbora ondo aprobetxatu dut". Bestalde atzerrira mugitu beharraren alderdi txarrak edo desabantailak aipatu clizkigu, "familiakoak gutxi ikustea gogorra da, baina urtean bi aldiz bisitatzen ditut. Lagunetaz ere oroitzen naiz, baina zorionez hemen ere lagun asko egin ditut, baita Irlandakoak ez direnak ere, frantsesak, alemanak etab. Ez dut integratzeko arazorik izan. Irlandako bizimodua Euskal Herrikoaren antzerakoa da, eta bertako jendea oso irekia eta jatorra da". Irlandatik harrigarriena udarik ez dutela izaten iruditzen zaio, "hondartzak egon badauden arren, eguraldia dela-eta ezin baitira aprobetxatu".

> "Hona etorri baino lehen, hainbat lanetan saiatu nintzen Elgoibarren: umiak zaintzen, restaurante batian... lan gutxi zauan momentua tokatu zitzaidan eta Irlandara etortzeko beste arrazoi bat izan zen".

**Distantziak gutxitzen ari dira**

Denborak aurrera egin ahala, eta are gehiago XXI. mendearen atarian, herrialdeen arteko distantziak gero eta gehiago gerturatzen ari dira. Globalizazioaren fenomenoa errealitate bat da. Hori dela eta, gazte askok atzerrian lan egin beharko dute etorkizunean. Gaur egun jertde asko mugitzen da bere jaioterritik lan bila; Donostian, Bilbon edo Gasteizen lanean dauden elgoibartarrak bilatzea ez da batere arraroa. Hala ere etorkizunean, Ingalaterran, Frantzian, Suedian, Alemanian... lan egitea izango da arrunta, beharbada, nork daki?

# Behri izanez lerri inteke litgruilrn [Irfrrol?



**ENCARNA PEÑA**
**39 urte, etxekoandrea**

Ez banu hemen aurkituko, uste dut baietz. Baina bakoitzaren egoera zein den ikusi behar da. Ni, orain momentuan, ez nintzateke joango baina gazteagoa banintz bai.



**JORGE EPALZA**
**18 urte, ikaslea**

Depende nora, ni lanera eta inglesa ikastera juango nintzake. Ez diot pegarik ikusten, nire arrebak esaterako, kanpoan daude.



**DORI** GORREZ
26 urte, kutxazaina

Segun eta zein egoeratan zauden. Adin batetik aurrera eta familiarekin lotura sendoa badaukazu, zailagoa da. Lan hobea aurkituko banu bakanik joango nintzateke.



MONIKA SILVA
16 urte, ikaslea

Ni prest egongo nintzake. Bi]dur piskat ematen dia, baina ikasiko nuke. Gainera, inportantiena lana eukitzia da eta zure bizitza aurrera ateratzia.



FCO. JAVIER CONDE
38 urte, espezialista

Kanpoan ibili naiz eta nahiago dut Euskadi. Daukadan adinarekin eta familia hemen edukita, ez litzaidake gustatuko kanpora irtetea. Gaztea banintz, ez litzaidake inportako.



JOSU DURAN
15 urte, ikaslea

Zergatik ez! Nahiago dut hemen lan egin baina ez dakat problemarik kanpora juteko. Hasieran kostau ingo jatan baina urteekin ohituko nintzateke.





*ESKERTZA*

*1999ko azaroaren 6an, 86 urte zituela hil zen*
*ISABEL BERGARETXE ARDANZAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

---

*50. IIRTEURRENA*

*1949ko azaroaren 22an, 42 urte zituela hil zen*
*PEDRO GORRITI ETXEBERRIAren eta hil berri den bere*
*emazte ISABEL BERGARETXE ARDANZAren oroimenez*
*MEZA izango da Madalan igandean, hilak 21, eguerdiko 12:30etan.*
*Joaten zaretenot eskerrak aldez aurretik.*





# iSPiLUARI BEGIRA



Victor Augusto Vieira

**IZAR Bideoklubekoa**

**-Zein pelikulako protagonista izan nahi zenuke?-** "**El** principe de Zamunda" pelikulan Eddy Murphy izatea ez legoke batere gaizki.

**-Elgoibarko zein txoko sartuko zenuke pelikula batean?** Leku-Ederreko parkea, adibidez.

**-Amaiera zoriontsudun istorioak atsegin dituzu?** B ai.

**-Bizitza koloreetan, zuri-beltzean, deskafeinatua... nola ikusten duzu?**

- Bizitza koloretan ikusi behar da. Egun guztiak ez dira berdinak baina baikorra izan behar da.

**-Zure bizitzako zein une ikusiko zenuke behin eta berriz bideoan?-** Haurtzaroa.

**-Zein motakoak dira jendeak gehien eskatzen dituen pelikulak?-** Irtetzen diren pelikula berriak, eta akziozko eta beldurrezko generoak dira arrakasta gehien dutenak.

**-Bideoak zinea hilko al du?-** Ez dut uste. Zineak bideoa hiltzea ere gerta daiteke.

**-Ongarriko filmak ala komertzialak?-** Biak.

**-Zein aktore ezagutuko nahi zenuke?-** Eddy Murphy eta Sharon Stone.

**-Pelikula bat ikusteko gogoa kentzen dizun aktorerik?** Robin Williams.

**-Zer generotako pelikulak gustatzen zaizkizu?**

- Akziozko thri I ler-ak.

**-Gustuko filme bat?- "Cadena** Perpetua"

**-Zein da gehien ikusi duzun pelikula?**

- "**Four** Rooms" 4 bat aldiz ikusi dut.

**-Efektu bereziak dituzten pelikulak ala zuri beltzekoak?** Efektu bereziak dituztenak.

**-Txikitan indioak ala bakeroak zenituen gustuko?-** Bakeroak, pistolak zituztelako-edo.

**-Bideo klub moderno honekin filme pornoak hartzeko lotsa gutxiago izango du jendeak, ezta?**

- Bai, kutxazain automatiko batetik dirua ateratzea bezalakoa da, inork ez du zer aukeratu duzun ikusten.

**-Zer behar da bideo bat gustura ikusteko?**

Jarleku erosoa eta iluntasun piska bat.

**-Zein da zure anbizioa? Eta bizioa?-** Ez naiz oso anbiziosoa, daukatenarekin konformatzen naiz. Bizioa, berriz, pelikula onak ikustea.

**-Afiziorik?-** Deporte piska bat egin eta denbora brea Iagunekin pasatzea.


*Miopia* *Excimer laser* *Lasik*

***Jose Ignacio Recalde Yurrita***

*MedIku Oftalmologoa*

Laserrarekin interbentzioak BLLBON

Urtzaile kalea 2, 1 • EIBAR **Te1.943** 20 18 44

# Pobreziaren aurkalb blhariu ra Eslke .Elgoribmg Ern

## Dirurik ez daukatenei oinarrizko soldata ematea eskatzen du martxa honek

Gutun Sozialaren Aldeko ibilaldia bihar, larunbata hilak 20, Elgoibarrera iritsiko da. Pobreziaren aurkako ibilaldi hau, pasa den igandean, hilaren 14an abiatu zen Tuteran eta Hego Euskal Herria zeharkatu ondoren, Bilbon amaituko da azaroaren 27an.

Elgoibarko Gutun Sozialaren Aldeko Plataformako kideek, zenbait ekitaldi antolatu dituzte ibilaldia datorrenerako. Lehendabizi, goizeko 11:30ean, Madalan martxistekin bat egingo dute. Ibilaldiak Elgoibarko kaleak zeharkatuko ditu eta ondoren, Plaza Handian ongi etorria egingo zaio. Alderdi politiko, sindikatu eta elkarte ezberdinetako ordezkariekin Gutun Sozialaren aldarrikapenak




ezagutarazi ostean, Plazan bildutakoek ibilaldiari agurra egingo diote, Eibarrerako bidea hartuko baitu.

Elkartasunezko martxa honek, bizitzeko nahikoa diru ez daukatenei oinarrizko soldata ematea eskatzen du. Antolatzaileen arabera, lanik ez daukatenei pobreziatik irteteko aukera eman behar zaie, gaur egunean ez daukaten bizitza maila lor dezaten. Ibilaldi honek gizartearen babes zabala jaso nahi du agintarien ideiak aldatzeko. Horrela, Gobemuko ordezkariek baliabide ekonomikoak ez dituztenen aldeko jarrera hartzea nahi da.

*Elgoibarko kaleak zeharkatu ostean, ongi-etorria egingo zaio ibilaldiari Plaza Handian.*

## Gaztain Erre festa izango da larunbatean, azaroaren 20an, Mendaron

Larunbatean, azaroaren 20an, Gaztain Erre festa izango da Mendaron eta bertan baba gorri lehiaketa eta herri bazkaria egingo dira, *Mendaroko Plataforma Aktiboa-k* antolaturik. Bazkaria alaitzeko Joxe Agirre eta Mañukorta bertsolariak eta Andonegi eta Ostolaza trikitilariak egongo dira. Bazkaria Gofiati pilotalekuan izango da eta baben prestaketan goizeko 9:30ean hasiko dira parte hartzaileak. Bestalde, *In leike* taldeak antolaturik, urriaren 30ean garbiketa eguna izan zen Mendaron eta 23 lagunek hartu zuen parte. Aran erreka, Deba ibai ingurua, Plaza auzoa eta Azpilgoetako eliz buelta garbitu zituzten. Garbiketa egunaren ostean, zakarrontziak jartzea eta sasiak moztea proposatu zuten.

# 1198 llagun Ingarrafi 1111111111111tuen *Erpotatx** HIES-ak lota hilltiako elgoihartarrak oroitzeko

## Elkarteak Prebentzio Astearen balorazio positiboa egin du

100 lagun inguru bildu ziren joan zen zapatuan, hilaren 13an, Plaza Handian *Errotatxok* antolatutako kontzentrazioan. Elgoibarren HIES gaitzak jota hil diren 60 lagunak oroitzeko ekintza honekin amaitu zen elkarte honek antolatutako Prebentzio Astea. Dantzari batek lazo goni handi baten aurrean aurreskua dantzatu eta gero, txalapartaren doinuak entzun ziren eta ondoren, bertara joandalcoek, babesa eta elkartasuna erakutsi nahi izan zieten gaitz hau daukatenei. Hasiera batean, *Errotatxoren* asmoa giza katea egitea bazen ere, eguraldi txarra zela-eta. azkenik kontzentrazioa bakarrik egin zuten.

Antolatzaileek ekitaldien balorazio positiboa egin zuten astearen bukaeran. HIES gaitzaren prebentzioaren alde lan egiten duen elkarteak, "Informazioa, prebentziorik onena" lelopean antolatu du aurten ere aste hau. Astean zehar ekitaldi ezberdinak izan ziren. Asteazkenean, hilaren 10ean, solasaldi bat egin zen *Zazpiki Irratian* gaisoek gaitzaren aurka hartzen dituzten botikek dituzten ondorioei buruz. Ostiralean, berriz, *Algara* Antzerki Taldeak "Un follon de testamento" antzezlana eskaini zuen Herriko Antzokian. Azkenik, Prebentzio Astea amaitzeko, aipatutako kontzentrazioa egin zen.



*Thesak jota hildako 60 elgoibariurrak go go ratze ko ekitaldiarekin amaitu zen EtrotatiOren Prebentzio Astea.*



## 27 egun desagerturik zeramalzan gizonezkoa hilda agertu da Santa Hlara eta Urasandi auzoen artean

J. M. izeneko elgoibartarra, pasa den urriaren 20az geroztik desagerturik zegoena, asteartean, hilaren 16an, topatu zuten hilda. 60 urteko jubilatua, Santa Klara eta Urasandi auzoak lotzen dituen bidezidorretik hurbil aurkitu zuten Iberdrolako langile batzuek. Semea bertara joan eta hildakoaren gorpua ezagutu zuen. J. M.-k 27 egun eman ditu desagerturik hilda aurkitu duten arte.

## Gemma Monreal margolariak koadro bat eman du Ume Hiperaktiboen Elkarteak zorketatzeko



Gemma Monreal margolari elgoibartarrak bere koadro bat eman dio Ume Hiperaktiboen E1karteari. Elgoibarren lau familia daude arazo hori daukatenak eta Gipuzkoako Ume Hiperaktiboen Elkarteko partaide dira. Elkarte horrek dirua behar duenez, errifa bat atera du. Horretarako, hainbat pertsonek gauza ezberdinak eman dituzte zozketatzeko eta tartean Gemma Monreal margolariak eskaini duen koadroa dago.



nr

## *Soziedad Alkoholika* taldeak Ikastolako Frontoia bete zuen zapatuko kontzertuan

Giro aparta izan zen joan zen zapatuan, hilaren 13an, Ikastolako Frontoian, *Soziedad Alkoholika* musika taldeak eskaini zuen kontzertuan. *Soziedad Alkoholikak* mlla lagun inguru bildu zituen eta azkenerako pilotalekua bete egin zen. *Soziedad Alkoholikaren* aurretik, *Parasite eta Eraso* taldeek jo zuten. Heavy metal zaleak gustura baino gusturago gelditu ziren kontzertuaren amaieran. Kontzertua Elgoibarko hainbat tabernarik antolatu zuten.

## • 1MSERSOko ikastaroetan parte harizeke artera dute gubdiu fisao edo sensorialak

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak, IMSERSOk gestionatutako Ianbide beziketa eta formazio ikastaroak dande1a jakinarazi nahi die herritarrei. Ikastaro hauek gutxitu fisikoak edo sensorialak direnei zuzenduta daude. Honi buruzko informazio gehiago jaso nahi duenak, Udaleko Gizarte Ongizate Sailera jo dezake (943 74 10 08),

## • HHdako bi izan dira 13goibarren izandako beste horrenbeste istriputan

Bi lagun hil dira azken astean Elgoibarren izandako bi istriputan. Lehenengoan, lagun bat hil zen pasa den larunbatean, hilaren 13an, A-8 Bilbo-Behobia autopistan EIgoibar parean. Bertan, Madrilgo matrikuladun Renault Megane auto bat, Donostiarako norabidean zihoana, errepidetik irten zen ezagunak ez diren arrazoiengatik. Jarraian, autopista babesteko horma jo zuen eta kolpearen ondorioz, autoan zihoan bidaiari bat hil egin zen. Bigarren istripua, asteartean, hilaren 16an gertatu zen Azkaraten. Mendatea jaisten ari zen kamioi bat, bidetik irten eta amildegian behera joan zen. Ondorioz, 23 urteko A. I. gazte zestoarra hil egin zen.

## • *TxaokakuaElkaleak* komerthoari burtako ikastaroak antolatu ditu

*Txankakuak*, Elgoibarko Merkatarien Elkarteak, ikastaro batzuk antolatu ditu datozen asteetarako. Lehenengoa, azaroaren 22an izango da eta landuko den gaia "Asoziazismo komertziala" izango da, Jon Aldeiturriaga, Bilboko Alde Zaharreko gerentearen eskutik. Ondoren, azaroaren 29an, Santiago Pages-ek, *Komertzioa* programaren zuzendariak, promozio komertziala nola antolatu behar den aztertuko du. Azken ikastaroa, abenduaren 9an, l0ean eta 17an izango da. Hizlaria Ruben Diaz Velez, Ergonomiako Euskal Institutoko kidea izango da eta berak, "kornertzioan lan arriskuei nola aurre hartu" izango du mintzagai. Ikastaro guztiak dendariei zuzenduta daude eta bertara joateko derrigorrez izena eman behar denez, 943 20 66 66 telefonora deitu behar da.

# GURE MENDEA

*XX. MENDEKO EUSKAL HERRIA*

*LIBURLI+CD-ROM ETA MAHAI IOKOAN*

**FAMILIA ETA LAGUNARTERAKO EUSKAL "TRIVIAL"A**

**SEI GAIEI DAGOZKIEN KOLOREAK ESKURATU BEHAR DITUZU!**

1,500 galdera-erantzun
14 urtetik gorakoentzat
2-8 jokalari
Geografia, kirola, historia,
artea, hizkuntza...

**ERNE GALDERA GAIZTOEKIN,**
**ZIRIEKIN ETA TRANPEKIN!**




**XX.MENDEKO EUSKAL KULTURA**
**Liburu+CD-ROMean**

**LIBURUA**
Ehun kronika
Urtez urteko kronologia erreferentziala
Ehun argazki.

**CD-ROMa**
Ehun kronika
Urtez urteko kronologia osatua
Herneroteka: iritzi artikuluak, elkarrizketak, publizitate-iragarkiak
Pertsonaia esanguratsuak
Argazki ugari

**ARGIA.**
**eskutik**

ARGIAn salgai • Te .: 943 37 15 45 • denda@argia.com

# Txiki BARREN

**LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 58. GEH1GARRIA**



Honako argazkia Santa Zezilia egunekoa da. Datorren astelehenean, azaroaren 22an, Santa Zezilia eguna denez, aproposa iruditu zaie Ikastolakoei guregana ekartzea. Argazkia, duelo bost urtekoa da, 1994ko azaroaren 22an Elgoibarko kaleetan ateratakoa. Egun honetan, urtero Ikastolako ikasleak kalera irteten dira. Era honetan, urteetan landutako musika zaletasuna erakusten dute herriko kaleetan zehar. Datorren astelehenean ere, musikoen eguna dela-eta, Ikastolako neska-mutikoek musiko guztiak omenduko dituzte.

## Txistea

Lagun batzuek opari bat egin nahi diote Koldori eta ea zer gustatuko litzaiokeen galdetzen diote:

— **Pipa** bat, eta aurrean zuzendariaren aurpegia izan dezala grabatua .

— **Baina** hainbeste maite al duk?

— Bai zera! Ea lortzen dudan erretzeari uztea!



# Jakaunen eskutik

## PVCzko jostailuak: jostailu arriskutsuak

Aurki opariak jaun eta jabe izango diren garaian sartuko gara: Gabonetan. Umeek Olentzerori eskatutako opariak jasoko dituzte eta horrela beraien ilusioa beteko da. Era bateko nahiz besteko jostailuak iritsiko zaizkie umeei eta hauei esker gozatuko dira. Baina, badaude kontutan hartu beharreko jostailu batzuk: PVCzko jostailuak. izan ere, jostailu hauek arriskutsuak izan daitezke umeen osasunerako.

Europako Batasuneko Batzordeak, azaroaren 10ean, PVC eta ftalatoak (PVCa biguntzeko erabiltzen den substantzia), dituzten jostailuak ahalik eta azkarren merkatutik erretiratzea proposatu zuen. Europar Batasunak bi proposamen egin zituen: jostailu horiek erretiratzea, batetik, ahora eramateko propio eginda daudeneon. Eta, bestetik, ahora eraman daitezkeenean. Azken kasu honetan, Bruselak, 36 hilabetez azpiko umeentzat diren jostailuek bereizgarriren bat eramateko proposatu zuen.

Erabaki hauek hartzeko arrazoiak ondokoak dira: proba zientifikoen arabera, ftalatoak botatzen direnean jostailuetan, umeek xurgatu egin ditzakete zurrupatzen dituztenean. Ftalatoak PVCa biguntzeko erabiltzen dira, eta horien eragina umeentzat arriskutsua izan daitekeela esaten du zenbait adituk, gehienetan oso haur txikiei zuzendutakoak izaten direlako. Frogatuta dago ftalatoek kalte egin dezaketela giberean, giltzurrunetan eta baita barrabiletan ere, batez ere denbora luzez jostailuekin harremana izaten denean.

Europako Batzordeak 1998ko uztailean aholku bat eman zuen gaiaren inguruan eta orduztik zortzi Estatuk jostailuak murriztea erabaki zuten: Austriak, Danimarkak, Finiandiak, Frantziak, Alemaniak, Greziak, Italiak eta Suediak. Euskal Herrian ere, Eusko Jaurfaritzak, iazko irailean zenbait erabaki hartu zituen jostailu horien salerosketa kontrolatzeko. Orduan, Europar Batasunaren Toxikotasun Batzorde Zientifikoak ezarritako ftafato mugak gainditzen zituzten jostailuak merkatutik erretiratzea erabaki zuen. Orain, era honetako jostairu guztiak, Larrialdietako Batzordearekin kontsultatu ondoren, debekatu egingo dira Europatik ofizialki jakinorazten denean.

1TURRIA: Euskalduñon Egunkaria

## Zer iritzi daukazu .... AlticAu ri buruz?



F4444 444 luaa4, 4144, 141444, m.lemi5z4. Of,4 '43444

,04.1e4. W14 H4.214€1(i4'.

AARON SEGURA, 9 urte



Nzo/i41'0 iht41e4 04,p 4e/4/e444.1,0 4440 mia1e44

J0/4/4u.e, 14hA 44%4 A111440, 44,0 ~14,;4 $14.

MIREN ESNAOLA, 14 urte.



11(444 4+1474 Ha,e4. 404.44.014. 4,;«, 4.41 ti47141,tz.

e~1.€4,

BEÑAT KONDE, 12 urte



**AMAIA AZKONAGA**
**Ti urte**

# Gaide debalde

1- Zein pelikula gustatzen zaizu?
2- Zenbaki bat?
3- Gustuka duzun izen bat?
4- Handitzean zer izan nahi duzu?
5- Gustatzen al zaizu udazkena?
6- Musika talde bat?
7- Zein da gehien gustatzen zaizun ikasgaia?
8- Zer egingo zenuke alkatea bazina?



**ALEXASIDUU RUI1/**
**S urte**

1- "Forrest Gump",
2- Zortzia,
Amaia.
4- Ez dakit,
5- Bai.
6- "La Oreja de Van Gogh".
7- Inglesa.
8- Parke gehiago jarri.

1- "Hercules".
2- Hamabia.
3- Javi,
4- Futbolista.
5- Bai.
6- "Chayanee".
7- Matematika.
8- Parkeetan arbola gehiago landatu.

# Zer da...94(-Pa-



Gaua da eta guk lo egiten dugu. Amets egiten dugu.



Gaua da izarrak eta ilargia dauden tokia.

**JUSU ADAD II ULID**



Eguzkia ezkutatu egiten da eta otsoak uluka hasten diren une iluna da gaua.

**ION ODLIOZOLA S urte**



Umeei beldurra ematen dien momentua da, mamuak egoten direlako. Niri ez dit beldurrik ematen.



Eguzkia mendien artean ezkutatzen denean eta ilargia irtetzen denean sortzen da gaua. Hori da gaua.



Gaua, zerua ilun eta polita jartzen denean da eta izar piloa ateratzen da. Ilargia ere egoten da gauean.

**ERANTZUNAK:** 1-Mataza-hari **2-** Zer egingo zenuke alkatea bazina eta **4-** Zakua, igela eta eguna,ordua,minutua.

pao !aBoinJill
uoazflorq oioxla o4a
upiamioxle noi 04969
ing Tuoti aplopy —

pol6Joll lop uelsacio
l!zod oso uolano6
imou

**ZIDU Z3 —**

ouep Jotiaci u!6a alaci
olalo6a l!inz
iolap **JOZ** opp **.18Z**

V O N 3 1
O 1 X 1 n Z
3 V 3
3 V r H x V
V r 1 O N V 3
d 3 H X 3
V n V V N
d V Z
d 3 1 3 n
V 3 4 9 V 3 H 3 N
V d 3 3 V N 3
n S O N Z 8

VEIVZ IVSI
°U93 dali4"(1 VDEIV
trn fr afr)/ OSdffig V e3a 101dlyik9h1

nownli !Dti!
11»15111 gliDd04 11021 **3.**

)110111VMPUISIf **4.**



,,.ouopoz uazIolsn6
uaqa6 uoapo uauap
op oun6a ualoiazwaro
'ffla olok 7a UIDJO oupci
lippdo ugno uaziosoM
uoaun6a a6aug oia
oJazlualo uaLial u3z4osol
oyo uodo zg,,

**awn zi**
**ONIWZI1d 012119011**

uazlosol
olso !Jodo oual!lod
op Dunea uap uezpqa
oiazivaio orialoplz!p
uaupwa lopodo
Inp uazIosod opuo,,

**94Ari L**
**V1OZOWCIO**
**va nvī**





2e1

¿ ..........................................................

**ohew itiappl Jaz** **2.**

**iwolD9 DP "Z** **1.**

# pmentisa ziaza npscocimioquaa

Kir 1111.11iinriiiiirriailu

# "Zine komertzialaren egituretara obitu bestelako zinea arraroa iruditzen zalgu"

a22

**Azken hiru urtetan Ongarri Zine Klubak 75** me **eman ditu eta 120 saio inguru eskaini. UdaIeko Kultura sailarekin bi urterako akordio berria sinatu ostean, berriz ere, martxan jarriko dute zine kluba azaroaren 25etik aurrera. Iñaki Agirre** *Ongarriko* **kidea zinezale amorratua dugu, eta Ongarrin hasieratik dagoenez, berarekin hitz egin dugu zine kluba ri eta zineari buruz orokorrean.**

**— Zer berezitasun ditu Udaleko Kultura sailarekin sinatu duzuen akordio herriak?**

- Akordioa bi urterako izango da, 2.000. urtetik 2.003ra. Aldaketei dagokienez, ostegunetako emanaldietaz aparte,12 ostiral genituen Iehen. Hemendik aurrera, berriz, 3 ostiraletan bakarrik eskaini ahal izango ditugu gure pelikulak. Herriko beste hainbat kolektibok Herriko Antzokia behar dutelako, besteak beste. Denboraldiaren aurkezpena egiteko edo ziklo berezietarako aprobetxatuko ditugu ostiralok.

**— Ongarrikook jende berriaren beharretan zaudete, ezta?**

- Bai, Ongarri Zine Kluba aurrera ateratzen dugunok urte asko daramatzagu, eta datozen bi urteotan jende berria bilatzea da gure asmoa. Ez dugu zine aditurik bilatzen, zineari buruz gure antzeko ideiak dituen jendea baizik. Hori bai, lan egiteko gogoa eta iniziatibadun pertsonak izatea asko eskertuko genuke, hau da, besapean ideia berriekin datozenak.

**—Nola aukeratzen dituzue pelikulak?**

- Zine komertzialaren mandatuak jarraitzen ez dituzten pelikulen artean aukeraketa bat egitea da gure lana. Iran, India, Txina, Finlandia... moduko herrialdeetan egiten duten zinea hurbiltzen ere saiatzen gara. Hiri handietatik pasa ondoren iristen dira gure eskuetara eta erosi ahal ditugunak eskaintzen ditugu.

**—Askotan entzungo zenuen zine klubeko pelikulak arraroak izaten direla?**

Bai, topiko hori oso zabaldua dago, baina askok sinestu ez arren, filmeak aukeratzerakoan ikusleengan asko pentsatzen dugu. Guk eskaintzen ditugun pelikulak gai zehatz eta ulergarri baten ingurukoak izan daitezela saiatzen gara. Gai oso humanoak eta gertukoak izaten dira, baina, zuzendariek beste ikuspuntu batetik eta zine lengoaia desberdin bat erabiliz kontatzen dituzte, modu pertsonalagoan. Ikusleak izan ditzakeen sentsazioak alde batera utzita, kalitatezko filmak dira, eta denborarekin zinezaleek pelikula hauek bere osotasunean ulertuko dituztela sinesturik gaude.

**—Zein dira zine komertziala eta Ongarri Zine Klubeko pelikulen arteko ezberdintasun nagusiak?**

- Zine komertziaIetik aparte dauden zinegileek, zerbait adierazi nahi dutelako egiten dituzte pelikulak, eta ez ikusleen eta merkatuaren nahi edo gustuen arabera. Gainera, zine komertzialak beti jarraitzen du eskema berdina, beti pelikula berdina izango balitz moduan. Zine komertziala nagusi denez, bere egiturara ohitu gara eta hortik kanpokoa arraroa iruditzen zaigu. Bestalde, Ongarriko filmeak ez dira zine aretotik irtetean bukatzen, buruan bueitaka jarraitzen dute eta gehienetan sakoneko gaiak dituzte barruan ezkutaturik.

**—Zein da Ongarri Zine Klubaren berezitasun nagusiena?**

- Herritik mugitu gabe beste herrialde batzuetako zinea erakusten dugu, eta honen bitartez, kultura, ohitura eta jende berria ezagutzeko aukera ematen ari gara..

*EESTEEK ESAIVA*

**"Ur sakonetako ibiltaria, ametsen mundua den zinean teorikoa eta praktikoa. Ongarri zine klubeko langile nekaezina" IÑAKI SOARTE,** *Ongarri* ZK-ko kidea.



ÑAK rre 151






uan Acha-Orbea 77 urteko elgoibartarra Iruñan bizi da gaur egun, baina hainbat leku ezagutu ditu

tnan bizitzan zehar.

*Ackcs.-0* ea Pilar ikastebcean eta Eibarren ikasi ostean, gerra zela-eta, Miranda de Ebrora joan zen. Ondoren, injiniru elektromekaniko ikasketak arnaitu zituen Madrilen, eta Suizara joan zen. Zurich hirian 45 urte pasa zituen, eta Brown Boveri enpresan egin zuen lan, "Suiza oso herrialde auntratuada, dena oso txukun eta garbi dago eta paisaiak ere zoragarriak dira. Nire lana zela-eta herrialde asko ezagutu ditut, baina gutxi Suiza modukoak". Suizako egonaldi luze honetan ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko aukera izan zuen, "euskara ikasten ere saiatu naiz, baina ez dut guztiz menderatzerik lortu oraindik". Iruñan bere arreba bat bizi da eta hiria asko gustatzen zaionez, bertara bizitzera joatea erabaki zuen. Azken urte hatietan bizitzaz disfrutatzen ari dela aipatu digu, "liburuak irakurtzen, musika entzuten, pasiara luzeak ematen eta jendearekin hitz egiten pasatzen dut denbora". Elgoibarrera gutxitan etortzen dela esan digu, "arreba bisitatzera edo entiarroren batera bakarrik joaten naiz". Bestalde, bere seme bat Zurichen bizi dela eta biokirnikoa dela esan digu, "karitzerraren aurka egin dituen ikerketak direla-eta, bi sari garrantzitsu jaso berri ditu eta nobel saria jaso duen zientzilari batekin lanean ibilia da".


dffilk
11mlawo .o.. ■-10f-
'0115,
BILBRO EXPeESS
bidaia agentziak
babestutako atala
Foruen enparantza, 3
Tei: 943 74 39 12




# Maria Luisa Ondarra Alberdi

## (1914-1220)



- 1914ko uztailaren 2an jaio zen Elgoibarko San Frantzisko kalean. 7,azpi anai-arreba izan ziren, bera zazpigarrena. Gaztetako ikasketak Madalako mojekin burutu zituen.
- Madalako eleiz arkupean eta ondoan zegoen Hormetxeko zelaian pasa zuen haurtzaroa bere Iagun koadriIarekin jolasean. Maria Luisa familiako gazteena zen eta anai-arreba gehienak mutilak ziren, hori zela-eta errekadu mordoa eginez lagundu zion familiari.
- Koskortu zenean, Alkortaneko ehundegian hasi zen lanean, makina bat emakume elgoibartarrek lan egin zuten Iantegian, hain zuzen. Lantegi hau oso ospetsua zen garai hartan eta berak 3 urtez egin zuen lan bertan.
- Gero, ama hil zitzaion oraindik oso gazte zela, amak 45 urte besterik ez zituen-eta. Maria Luisaren aitak eta anaiek San Pedroko fabrikan lan egiten zuten eta berak hainbat bider prestatu eta eraman zien bazkaria.
- Benetako etxeko andra bihurtu zen eta sukaldari moduan ere egin zuen lan Eibarren. 1945ean ezkondu zen Eibarko Antonio Morenorekin, eta 3 seme-alaba izan zituzten. Antonio igeltsero ospetsua zen, eta bere ile gorriska zela-eta "Rubito" deitzen zioten.
- Tamalez, berriz ere nahigabea izan zuten etxean, aita gaixoak jo baitzuen. Aita ohetik ezin mugituta geratu zen, eta Maria Luisak 17 urtez zaindu zuen.
- Emakume langilea, sufritua, genio bizikoa, alaia, atsegina eta sinismenekoa zen. Lourdesera 5 bat aldiz joan zen eta `MiIagrosaren bederatziun¯enekoa' gogoko zuen.
- Alargundu zenean ere lanean jarraitu zuen Alkortaneko etxean, zerbitzari eta sukaldari moduan. Oso estimatua izan zen etxe honetan eta Mallorkara 3 bidaia ere egin zituen bertatik.
- Famili giroa, sukaldaritza, lagun artean paseatzea, zinea eta euskal kantak gogoko zituen. Baita, Jubilatuen Biltokiko lagungiroa ere.
- Elgoibartar ezagun hau, 1986ko urtarrilaren 20an hil zen, 71 urterekin.

Juanito Gorostiza.


HERRi-GAiN
ERRETEGiA
San Pedro auzoa,4
tr 943 74 30 40 ELGOIBAR



›% '7
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
943 20 35 15
1/ ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
*20600 EIBAR



Aste honetako erretratu zaharra **Nemesio Ansolak** laga digu. Argazkia 1964. urte inguruan Arantzazun atera zutela azaldu digu, "jendez betetako 4 edo 5 autobus jun ginan peregrinazivan Arantzazura. Goguan dakak ni izan nitzala autobusen arduraduna, eta ez naban makaleko lana euki".

Ikus dezagun argazkiko taldea nortzuk osatzen duten goitik eta ezkerretik hasita: **Calixto Zubiaurre, Karmen Urkiri, Tomas Urizarreta, Angela Aristondo** eta **Nemesio Ansola.**

Behean makurtuta: **Valentin Azpitarte** (Berasaluze baserriko semea).

**Tomas Urizarreta** medikua zen, eta oso ospetsua izan zen herrian.



***ESKERTZA***

*1999ko azaroaren 10ean, 69 urte zituela hil zen*

***RAFAEL AREMOAURTENA "Argentinoa"ren*** *arrebak,*

*bihotzez* ***ESKERTZEN*** *ditu jasotako doluminak, hala nola*

*hileta elizkizunetara agertu izana.*



# utal/ hVno ladiE giltriage kalr_

## BEHOBIA° ONOSTIA [11:129ketan

### 75 elgoibartarrek eta 3 mendarotarrek hartu dute parte

Urtetik urtera gora egiten du Behobia-Donostia lasterketa herrikoian parte hartzen duten elgoibattarren kopuruak. Aurten ere, eta eguraldiak lagundu ez zuen arren, sekula baino herritar gehiagok egin zituzten Behobia eta Donostia bitartean dauden 20 km. gogorrak. Euria eta hotza (9 gradu) izan zuten lagun lasterkariek. Hala ere, partehartz.aileen artean entzun ahal izan zenaren arabera eta sailkapeneko denborei kaso eginez gero, askok lortu zuten euren marka pertsonala hobetz.ea. Helmugara iritsi zen lehen elgoibartarra Martin Dominguez izan zen 1:12:47ko denborarekin. Lehen mendarotarra, berriz, Iker Mayora izan zen 1:11:46 denborarekin. Jarraian agertzen den taulan lasterketan izan ziren 75 elgoibartarren eta 3 mendarotarren denborak eta kategoria bakoitzean egindako postua agertzen dira. Fortuna klubak emandako sailkapena da, eta oraingoz probisionala dela adierazi digute. Bestalde, sailkapenari bunizko erreklamaziorik egin nahi izanez gero, idatzi bat bidali behar da `856 P.K. Donostia 20.080' helbidera.



*Argazkian, Udal Kirol Patronatuak antolatutako autobusean joan ziren korrikalariak Behobiako irteeran prest.*

**Behobiako lehen irabazlea Juan Mugerza izan zen**

Elgoibartarrok B ehobia-Donostia lasterketarekin daukagun erlazioa aspalditik datorren kontua da. Lasterketa herrikoi hau duela 80 urte antolatu zen lehen aldiz, eta Juan Mugerza elgoibartarra izan zen irabazlea 1:17:50 denborarekin. Dudarik gabe, ez zuen marka makala egin garai hartarako. Denbora horrekin, 5. elgoibartarra izango ]itzateke pasa den igandeko lasterketan, lehen elgoibartarrarengandik 5 minutu eskasera.

## *SAILKAPENA*

| Izena Denbora Postualkategoria | **Izena Denbora Postualkategoria** | **Izena** Denbora Postualkategoria |
|---|---|---|
| ELGOIBARTARRAK | **27- Elur Arrieta** 1:31:40 (19 **A)** | **54- Pedro Agirre 1:42:36** (3551 B) |
| **1- Martin Dominguez 1:12:47** (163 **B)** | **28- Hector Garrido** 1:32:25 (2163 B) | **55-Antonio Lendinez** 1:43:41 (1417 C) |
| **2- iñaki Konde** 1:14:55 (42 C) | 29- Luis Migel Espiga 1:32:28 (2176 B) | 56- Urtzi Alkorta 1:44:01 (3749 B) |
| **3- Oscar Malvar I:16:46** (334 **B)** | 30- Eduardo Santos 1:32:58 (2245 B) | 57- Daniel Rino 1:44:08 (3772 B) |
| **4- Arkaitz Mujika 1:17:44** (389 B) | 31- Pilar Arriola 1:33:17 (46 G) | 58- Carlos Ayesta 1:44:27 (3805 B) |
| **5- Asier Arrieta 1:17:50** (394 B) | 32- Iñaki Izagirre 1:33:18 (2307 B) | 59- Isabel Ruiz 1:45:05 (67 H) |
| **6- hiigo Etxaniz 1:17:53** (395 B) | 33- Ion Asensio 1:33:22 (2313 B) | 60- Javier Oñederra 1:46:50 (4104 B) |
| **7- Tomas Arrieta 1:18:12** (415 B) | 34- Alex Legorburu 1:33:27 (2319 B) | 61- Emilio Castro 1:48:40 (4288 B) |
| 8- lbon **Gabilondo** 1:18:44 (458 B) | 35- Ion Arrizabalaga 1:33:56 (2372 B) | 62- Edu Castillo 1:48:42 (4293 B) |
| 9- Luis Santamaria **1:22:17** (797 B) | 36- Hugo **del** Amo 1:33:57 (2379 B) | 63- Pilar Lama 1:48:44 (98 H) |
| 10- Juan Fernandez 1:23:48 (290 C) | 37- Constan Nuñez 1:34:00 (2390 B) | 64- M. Eugenia Gonzalez 1:49:01 (101 H) |
| 11- Iñaki Etxabe 1:24:17 (1030 B) | 38- Juan Jose Etxaniz 1:34:32 (2451 B) | 65- Eduardo Uribe 1:49:53 (4429 B) |
| 12- Jokin Agirrezabala 1:24:28 (1051 B) | 39- Ifiaki Arrieta 1:34:36 (844 C) | 66-Anselmo Vigara 1:50:50 (4522 B) |
| 13- Asier Sasiain 1:26:46 (1342 B) | 40- Jose Ignacio Izagirre 1:35:12 (890 C) | 67- Jose Manuel Fernandez 1:51:01 (4534 B) |
| *14- Jesus* **Maria Makazaga** 1:27:02 (1387 B) | **41- Roberto Gorriti** 1:35:46 (2633 B) | 68- Felix Ezkurra 1:51:34 (4576 B) |
| 15- Ignacio Perez 1:27:42 (471 C) | 42- Asier Orbea 1:37:00 (2789 B) | 69- Xabier Bastida 1:52:25 (4631 B) |
| 16- Javier Torquemada 1:28:37 (1618 B) | 43- Andoni Gurrutxaga 1:38:21 (2971 B) | 70- Lisardo Vieente 1:55:04 (4848 B) |
| 17- Alberto Zelaia 1:28:37 (1621 B) | **44- Jesus M.** Lersundi 1:38:32 (3002 B) | 71- Gloria Santiago 1:55:28 (161 H) |
| 18- Tomas Gonzalez 1:28:48 (515 C) | **45- Aitor** lbabe 1:38:43 (3036 B) | 72- Jose Manuel Rodriguez 1:58:49 (5032 B) |
| 19- Damel Bastida 1:28:51 (1670 B) | 46- Jose Angel Gallardo 1:39:16 (3104 B) | 73- Mari Pilar Arriola 1:58:51 (416 G) |
| 20-Juan Carlos Raña 1:29:05 (1709 B) | 47- Mikel Arregi 1:39:27 (3133 B) | 74- Izaskun Estibaritz 1:58:58 (191 H) |
| 21- Andoni Segundo 1:29:37 (562 C) | 48- Aitor Zubiaurre 1:39:33 (3152 B) | 75- Carlos Eizagirre 2:01:55 (5170 B) |
| 22- Mikel Legorburu 1:30:00 (1839 B) | **49- Jesus Beristain** 1:39:49 (3186 B) | |
| 23- Abel Irizar 1:30:47 (1952 B) | **50- Iffigo Belaustegi** 1:40:34 (1202 C) | MENDAROTARRAK |
| 24- Javier Agirrebeña 1:30:52 (1962 B) | 51- Javier Poyarden 1:42:27 (1336 C) | 1- Iker Maiora 1:11:46 (I28 B) |
| 25- bligo Ansola 1:31:11 (1988 B) | 52- Borja Uriarte 1:42:29 (3524 B) | 2-Juan Agustin Larrafiaga 1:20:38 (640 B) |
| 26- Iiiigo Lariz 1:31:22 (16 A) | **53- Aitor Galarraga** 1:42:30 (3530 B) | 3- Gorka Zabaleta 1:32:26 (2172 B) |

# 1111,ij Espalulake Judo **Txapelketa**

## Jubenil mailako Txapelketa hau Alcaia de Henaresen jokatu zen

Tbal Kirol Elkarteko Egoitz Mora ljudoka gaztea Espainiako jubenil mailako judo txapeldun berria da 90 kg.tik beherako kategorian. Txapelketa, azaroaren 13an eta 14an jokatu zen Madrilen, zehazki Meata de henaresko Caja Madrid pabilioian. Gauzak ezin hobeto atera zitzaizkion Egoitzi. Lehen konbatean 7 segundu aski izan zituen, `Ippon' bidez irabazi baitzion Madrileko ordezkariari. Bigarren borrokan ere ez zuen zailtasun gehiegirik izan, eta txapeldun canariarrari aixe irabazi zion. Gauzak horrela, finalerdietara pasatu zen, eta Madrilgo txapeldunaren aurka egin zuen. Honi ere nahiko erraz irabazi zion eta finalera iritsi zen. Finalean, berriz, aspaldiko ezagun bat izan zuen aurrez aurre, Ruben Juanto Nafarroako txapelduna, alegia.



*Eskuinetik hasita lehenengoa da Egoitz. Besle hirurak, lehen lau postuetan sailkatu zirenjudokak dira.*

Egoitzek aurreko bi alditako arantza atera nahi izan zuen (Espainiako bi txapelketatan gelditu zen urrea dastatu ezinik) eta ezin zuen aukera hau pasatzen laga. Beraz, konbatea irabazi eta podiumaren gorenera iristea lortu zuen: Espainiako txapeldun jubenil mailan.

# *Pagoaga Elgoibar* taldeak 98-99 denboraldiko Euskadiko Eskubaloi txapelketako garaikurra jaso du

Dagoaga Elgoibar eskubaloi taldeak 1 98-99 denboraldian, kadete mailan irabazitako Euskadiko Eskubaloi Txapelketaren garaikurra jaso zuen lartmbatean, hilaren 13an, Kiroldegian, Garaikurra Javier Zuriarrain Euskadiko Eskubaloi Federazioko presidentearen eskutik jaso zuten elgoibartarrek. Gogoan izatekoa da, iaz denboraldi aparta burutu zutela Pagoaga Elgoibar taldeko jokalariek, izan ere, Euskadiko txapeldun izateaz gain, Espainiako Txapelketan 5. sailkatu ziren.



*Argazkian, Pagoaga Elgoibar eskubaloi taldea iaz irabazi zuen garaikurrarekin ageri da.*

## • Elgodiario zlldoturiatek dkarte bat sortzeke aukerak arterbdw thate

Datorren asteazkenean, azaroaren 24an, elgoibarko zikloturista batzuek, zikloturisten egoeraz hitz egiteko bilera bat antolatu dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bilera arratsaldeko 19:30ean hasiko da. Zikloturista elgoibartar hauek EIkarte bat sortzekotan dabiltzala esan digute, irteerak antolatu eta zikloturista probetan talde moduan parte hartzeko, besteak beste. Adierazi digutenez, gai honen inguruan interesatu guztiak eta bizikletaz ibiltzea gustuko dutenak bilerara gonbidaturik daude.

## • Bibail bnak 20, jokatuko da Karakatera 111. Igoera

Karakateko igoeraren 6. edizioa bihar, hilak 20, izango da. Urgazi TriatIoi Taldeak. Morkaiko Mendizale Elkartearen laguntzaz antolatzen duen lasterketari Plaza Handitik emango zaio hasiera goizeko 10:30ean. zen emateak egunean bertan egi ahal izango dira, probaren hasiera baino ordu erdi lehenago. Sariei dagokienez, 3 kategoria egongo dira: sailkapen nagusia, ernalcumezkoak eta helduak.

## EMA1T-ZA

### Futbola

Haundi 1 - Arenas1 (3. maila)
Elgoibar 3 - Mutriku 1 (Neskak)
Pedrusko 2- Mondragon Il (1. erreg.)
Elgoibar 0- Anaitasuna 1 (Jub. E.L.)
Usurbil 0- Elgoibar 1 (1. erreg.)
Aretxabaieta 1- Elgoibar 9 (2. kad.)
Antiguoko 2- Elgoibar 1 (0. Int.)

### Eskubaloia

l,M.S. Elg 28 - Basauri 13 {Senior nes.)
l.M.H. Elg 33 - BKL. CAF, 19 (Senior mut.)
Unceta Elg 35 - Askartza-Claret 10 (Kad. nes.)
Pagoaga Elg. **22 -Askartia-Claret** 9 (Jub. nes.)
Arrasate 12 - Pneumax Elg. 30 (Jub. mut.)

### Areto futbola

Zur Ta Lor 2- Gure Txokoa **4 (1. maila)**
Zur Ta Lur 8- lraurgi Kirolak 3 (Autonom.)
Eskualdeko I. **Txapelketa**
Cherokee Team 3- Guria Elec. 1
S.A 13 - Eusko Label 0
Gure Toki **6-** La Colina 2
La Tarantela 7- Garrnas 1
Zordunak **4** - Culebrida 7
Ganbara 0- De La Buena 1
Peñaskos 3 - Garrufos 0
Caf. Arkupe 7- C.D.E. 7

### Xakea

Elgoibar 1.5 - Arrasate 2.5 (1. **maila)**
Elgoibar 2- Urretxu 2 (3. maila)

### Pilota

Elgoibar - Bergara (Nagusiak)

### Idarraga Kafeak 3, saria

**HALINDIko jokalari erregutarrena 99/00**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Castro | 25 |
| 2- Aranberri | 21 |
| 3- Zulaika | 1S |
| 4- Poto | 16 |
| 5- Alberdi | 11 |
| 5- Bravo | 9 |
| 7- Castillo | 8 |
| 8- G. Leonardo | 6 |
| 9- lbarluzea | 6 |
| 10- Txasio | 4 |
| 11- Caro | 4 |
| 12- Manolo Ramos | 4 |
| 13- Guarrotxena | 4 |
| 14- Alcorta | 3 |
| 15- Baque | 3 |
| 16- Fernandez | 2 |
| 17- Loren | 2 |
| 18- Diaz | 2 |

## l G1 VII Ilin

### Futbola, Mintxetan

**Larunbala, 20**
**15:30 Elgoibar** - Eibartarrak (2. kad.)
17:15 Elgoibar - Tolosaldea (1. **erreg.)**
**tgandea, 21**
**10:45** Elgoibar- Atoña-Mendi **(0. inl.)**
**12:00** Elgoibar - Bergara **(Neskak)**

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Larunbata, 20**
**15:00** Tecnomeca Elg. - Urola **(Kad. mut.)**
**17:30** Pneumax Elg. - Almen **(Jub. mul.)**

### Areto Futbola, Kiroldegian

**Larunbata 20,**
19:00 Doktor Pollo - P.S.K.
Igandea, 21
10:00 Los Herminios - lrion
11:00 Anorthosis - Real Mehy's
12:00 Horacio - Hermis
13:00 Bayern de Munitxibar - The Ravel's Herri **Eskolan**
9:30 Deportes Justo - Bar las Torres
**10:30** barrenkale - Etur Malutak
11:30 Kashima Brewers - Haritza

# Lertamilk He '2nu InIntlan allasalo 111 aspaiggla orgiez azarcwor 2BE

### kontzertua hasi aurretik hiru preso elgoibartarrak omenduko dituzte

*Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du ostiralean, hilaren 26n, Herriko Antzokian, gaueko 22:00etatik aurrera. Kantari oriotarrak, urte dezenteren ondoren, Elgoibarren joko du berriro Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako saioan, Elgoibarko presoek kartzelan 15 urte bete dituztela-eta. Bestalde, Benitoren zale ugariek aukera paregabea izango dute abeslari famatu honen kantak zuzenean entzuteko. Aldez aurretik staTerak lortu nahi dituenak, Oiz-Mendi eta Txuri-Beltz tabernetan ditu salgai 1.500 pezetaren truke.*

Benito Lertxundi dagoeneko aski ezaguna da eta gaur egunean gutxi izango dira Euskal Herrian haren aditzea ez dutenak. Izan ere, urte askotxotako ibilbidea duen kantariaz ari gara eta euskal kantagintzaren historian, klasikoak bihurtu diren hainbat kantaren egilea da Lertxundi.

Orioko kantaria 60ko hamarkadan euskal kantagintra benia osatu zuten *par*taideetako bat izan zen. "Ez Dok Arnaim" taldeko sortzailea izan zen, Mikel Laboa,



*Benito Lertxundik lehengo eta oraingo abestiak kantatuko ditu Elgoibarren emango duen kontzertuan.*

Xabier Lete. Lourdes Iriondo eta beste batzuekin batera. Garai hanan, "Ez dok hamairu" izenburuko diska argitaratu zuen. Ondoren, protesta kantuak laga eta folk doinuak, melodia liaikoagoak egiten hasi zen. "Oro laño mee batek" diskoan aurkitzen dira honen aztarnak. 1975ean bere hiruganen diska etorri zen, "...eta maita henia, uken dezadan plazera" . Diska honetan, Zuberoara hurbildu zen kantaria eta horrela, bertako kanta ederrak jaso zituen: "Jaun Baruak", "Maria Solt eta Kastero", "Atarratzeko gazteluko kantua" etab.

25 urte aino gehiagoko ibilbidean, Benito Lertxundik, kanta tradizionalak eta bere sormenezkoak grabatu ditu. Urte batzuetako geldialdiaren ostean, oriotarrak "Hitaz oroit" konpaktoa argitaratu zuen. Baina, erronka beniei ezetzik esaten ez dienez, iaz Euskadiko Orkestrarekin batera konpakto bat kaleratu zuen, bere zenbait kantaren moldaketak jasotzen zituena. "Ahuen sinfonikoa" izena hartu zuen eta hori da orain artean Benitok argitaratu duen azken diska. Gaur egunean, bere hurrengo konpaktoa izango dena prestatzen ari da.

# "Idney"filmarekin hasiko da *Ongarri Zine* Kilaharen denboraldi bengla szaroaren 25ean

### Ordutegia aldatu egin da eta aurrerantzean pelikulak 21 :30ean eskainiko dira

*Ongarri Zine Klubak eta* Udaleko Kultura Sailak akordio berria adostu dute aurrerantzean ere Zine Klub emankizunak egoteko gure herrian. Akordio berri hau datozen bi urteetarako adostu dute bi aldeek, lehendik zeukatena aurten bukatu ostean. Duela hiru urte sinatu zuten *Ongarrik* eta Udalak akordio zaharra eta hari esker, hiru urtetan zehar 75 pelikula ikusi ahal izan dituzte zinezale elgoibaruuTek.

Akordio berri honen berrikuntza nagusia zera da: negu-udaberriko denboraldi berrian, orohar ez da *Ongarriren* zine emankizunik egingo ostiraletan, bakanik behin edo birritan, beste elkarteren batekin elkarlanean antolatutako saioetan. Arrazoia, Kultura Sailak, ostirala, zine komertziala emateko eta beste elkarte batzuen emanaldietarako (antzerkia...) erabili nahi duela da. Horren truke, *Ongarri-k,* beste urtetan baino diru gehiago jasoko du eta horrek 25 filme inguru eskaintzeko aukera emango dio.

Azaroaren 25ean hasiko den denboraldi honetako beste berrikuntza nagusietako bat ordu aldaketarena da. Hemendik aurrera, ostegunetako saioak 9:30ean hasiko dira eta ez lehengo 10:15ean. *Ongarriko* kideek, emanaldiak, hiru ordu Iaurden aurreratzea erabaki dute, pertsona **batzuen eskaerari erantzunez. Izan ere, zenbaitentzat lehengo** ordutegian berandu bukatzen ziren pelikulak.

**Zikloka antolatutako pelikulak**

Iñaki Agirre *Ongarri-ko* kidearen asmoa, gai edo lelo berberaren inguruko pelikulen zikloak antolatzea da. Horrela, lehenengo zikloa, egungo amerikar zine beltzari buruzkoa izango da eta bertan bi pelikula eskainiko dira: ostegunean, hilaren **25ean, P. T. Anderson-en "Sidney"** ikusi ahal izango da eta hurrengo astean, abenduaren 2an, "Un plan seneillo", Sam Raimi-rena. Hurrengo zikloa, bi zinegile ernakumezkori eskainia izango da eta beronen barnean, "Flores de **otro mundo" Iciar Bollain-ena eta** "Cuando vuelvas a mi **lado" Gracia Kerejetarena** eskainiko dira.

# MODELO IKASKETAK

## Julia Fernandez

16 urte







NOLA ERABAKI ZENUEN MODELO AGENTZIA BATEN IKASTEN HASTEA?

Txikia nintzenetik gusfau izan jata modeluen mundua. Telebistan ikusi eta inbirixia emaien zien. Probatzia erabaki naban eta Donostiako "First Model" agentzian eman naban izena. Sarrerako probak gainditxu nitxun eta urrian hasi nintzan.

GURASOEI ZER IRUDITU ZAIE ZURE ERABAKIA?

Ez zaozen nere erabakixakin ados, eta asko kostau jatan konbentzitzia. Mundu oso superfiziala dala esaten ziaten, benetako mundua ez dala holakua. Gainera, nahiko garestixa irtetzen da kurtsua, baina nik probatziak merezi dabala uste dot.

ORAIN ARTE IKUSI DUZUNAREN ARABERA, USTE ZENUEN MODUKOA AL DA MODELO IZATEA?

Osa gustora nao eta jende jator asko ezautu dot, baina modelo izatea uste nabana baino zailaua da, konpetentzia izugarrixa baita. Bestalde, asko exigitzen digute eta momentu askotan gogorra da,

ZER IRAKASTEN D1ZUETE?

Argazkilaritza oinarri batzuk irakasteaz aporte, teoria liburu bat ere badaukagu. Urtebeteko ikasketak izaten diaz. Astian 3 bider juten naiz, eta urte bukaeran examina itxen digute. Aprobau ezkero "book" edo argazki bilduma bat ingo diate, hau, `curriculum' modukua izaten da modeluentzat.

ZER EZAUGARRI BEHAR DITU MODELO BATEK AURRERA EGITEKO?

Mota askotako modeluak daoz, maniki deitzen dianak, adibidez, fotografixan munduan aritzen dia. Ezagunenak, berriz, pasarelako modeluak dia. Neri, pasarelako modelua izatia gustauko jatan. Horretarako mehia egotia eta alturia eukitzia eskatzen dabe, 173 m-tik gora, nik1'82 m neurtzen dot, baina hasieratik esan zien gehixo mehetu bihar dotela. Aurpegi poiitxa eukitzia baino gehixao, gorputzai beitzen diote.

BA AL DUZU GUSTUKO MODELORIK?

Gisele izeneko Brasildar bat, urteko modelo aukerau dabe eta bere izakera asko gustatzen jata. Agentzian ere esaten diue zeinetan fijau bihar geran. Modeluen artian ere normala izaten da arrakasta lortu daben modeluak eredutzat hartzia.

MODELOEN ARTEAN INBIDIA ASKO IZATEN DELA ENTZUTEN DA, EGIA AL DA?

Piska bat bai. Begiratu eta aurpegi txarrak ipintzen ditxuen neska batzuk ezautu ditxut.

NOLA IKUSTEN DUZU ANOREXIAREN KONTUA?

Egia esan neska mehe mordo bat ikusten dia. Danetikan jaten dabela esaten dabe, baina ez dakitx nun sartzen daben. Hala ere, gero eta neska mehiauak eskatzen jarraitzen dabe.

AURRERA BEGIRA ZER ASMO DAUZKAZU?

Modelua izatia zer dan jakitzeko kuriosidadia nakan, esperientzia berri bat bizitzeko gogua. Hala ere, argi dakat modelo izatia ixa ezinezkua dala, futbolistia irtetzia bezain zaila da. Hori dala-eta, karrera bat ikastia nahi dot, injiniru kimiko ikasketak itxeko gogua dakat.

# AGENDA

## INTERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak .. . 911461111

Txanci hartzeko i 941743354

Planninq-a ........ 943 742950

Alkohol Anonimoak . 943740385

D YA (anbulantzia) . 943 464622

Gurutze Goiria . 943141964

Mendaroko Outtalea.. 24 3 032800

Odol Emaileak 943743936

GARRAIDAK

Eusko Trenbideak. .. 943 740442

PESA (Eib 410 12 19

Tangeltokia . . : 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366

Udal Kirol Patronatua.. 943 744415

Kultura Zerbitzua.. 943 742158

Mendaroko Udala. . 943 756100

Ongizate zerbitzua . 943741008

Udaletxea 11 1741050

Udaltzaingoa. . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626

Kiroldegia .......... 943 744415

Kontsunto Bulegoa . 943 743088

Liburute 943 743525

MusikalEskola .. 943 7411515

Mintxeta .......... 943 744315

Parrokia ............... 942 740842

Postetxea .......... 94Y741547

Gaztetxea .......... 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazinoitza 943 740296

Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . 943 74 21 41

HRI (EPA) .. 943 74 08 80

Herri Eskola 943 74 08 79

1.M H 943 74 41 32

Herri Institutua

Arreiturre . . .. 943 74 02 67

Ezenarro (Meka). 943 74 80 19

Ikastola .......... 943 74 44 41

Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN .......... 943 74 41

El Diario Vasco 94374 40 73

El Correo Español.. 943 74 10 82

Zazpiki irratia n 943 74 34 74

### 19 ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA
Gaztetxean

19:30 SANTA ZEZILIAko KONTZERTUA
Herriko Antzokian
Antolatzailea:
I. Bereziartua Musikeskola

22:15 ZINEA
"Eyes wide shut"

22:30 ANTZERKIA
"Detritus corazon"
Detritus Teatrus taldearekin
Gaztetxean

### 2 larun ata

10:30 **KARAKATEra VI IGOERA**
**Irteera: Plaza Handian**
**Antolatzaileak:**
**Urgazi Triatloi Taldea eta Morkaiko M.T.**

**12:00 POBREZIAREN AURKAKO IBILALDIARI ONGI-ETORRIA**
**Plaza Handian**

**19:00-22:15 ZINEA**
**"Eyes Wide shut"**

19:00 **KONTZERTUA**
*Dkva* **eta** *Urkatte* **taldeekin**
Gaztetxean

### 21 igandea

10:30 UDAL MUSIKA BANDAren KALEJIRA

12:30 UDAL MUSIKA **BANDAren KONTZERTUA**
Herriko **Antzokian**

**16:30 ZINEA**
**"Tarzan y la eiudad perdida"**

19:00-22:15 **ZINEA**
"Eyes wide shut"

19:00 ZINEA
"Gato negro, gato blaneo"
Gaztetxean

**19:45 ITXAROPENAren KONTZERTUA**
Udaletxeko arkupeetan

### 22 aste e ena

**14:15-16:30 TXANKAKUAren IKASTAROA**
Gaia: "Asoziazionismo kornertziala"

22:15 ZINEA
"Eyes wide shut"

### 23 asteartea

20:00 *ARDI BELTZA* ALDIZKARIAren AURKEZPENA
Hizlaria: Pepe Rei
Kultur Etxean

### 24 asteazkena

19:30 ZIKLOTURISTEN BILERA
Kultur Etxean

### 25 osteguna

21:30 ONGARRI ZINE KLUBA
**"Sidney"**

### 28 ostirala

19:30 SANTA ZEZILIAko KONTZERTUA
Herriko Antzokian
Antolatzailea:
I. Bereziartua Musikeskola

21:30 ZINE FORUMa
"Moll Flanders"
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
Kultur Etxean
Antolatzailea: HAIZEA E.T.

22:00 PRESOEI OMENALDIA
Ondoren, **BENITO LERTXUNDIren KANTALDIA**
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Batzordea

## ZINEA



**Zuzendaria: Stanley Kubrick.**
**Antzezleak: Tom Cruise, Nicole Kidman, Sidney Pollack.**

### "Eyes wide shut"

Stanley Kubriek zinegile ospetsuak hil aurretik zuzendu zuen azken pelikula da honako hau. Obsesio sexualak eta zeloak gai nagusitzat dituen pelikula honek, senar-emazte baten bizimoduaren berri ematen digu. Batetik etxe barruan dituzten erlazioak, eta bestetik, bakoitzak bere aldetik dituen luxu sozialak azaltzen dizkigu. Istorioa amaierarik ez duten kapitulotan banaturik dago, eta zalantza guztiak amaieran argituko dira.

## • Ama Birjinaren bederatziurrena

Ama Birjina Milagrosaren bederatziurrena egingo da ondorengo egunetan San Bartolome Parrokiart: hilaren 19an, 20an, 22an, 23an eta 24an, goizeko 9:00etan eta arratsaldeko 19:00etan. Igandean, hilaren 21ean, goizeko 10:30ean. Hilaren 25ean eta 26an, goizeko 9:00etan eta arratsaldeko 20:00etan, mezarekin. Hizlaria: Jose Kruz Igartua Salaberria izango da. Hilaren 27an, berriz, Ama Birjina Milagrosaren jaia izanik, meza nagusia egingo da goizeko 11:00etan. Madalako elizan ere egingo da Ama Birjinaren bederatziurrena, hilaren 19tik 27ra, larunbata barne, goizeko 1I:00etan. Hilaren 21ean, berriz, goizeko 8:30ean izango da.

## • *Ardi beltza* aldizkariaren aurkezpen hitzaldia

Asteartean, azaroaren 23an, arratsaldeko 20:00etan, Kultur Etxean Pepe Rei kazetaria izango da *Ardi beltza* aldizkariaren berri emateko. *beltza,* ikerkuntza kazetaritza jorratzen duen hilabetekaria da. *Egin* egunkariko ikerketa lan taldeko kazetariek sortua, ustelkeria kasuak azaleratzeko.

## • *itxaropena* abesbatzaren kontzertua

*lixaropena* abesbatzak, urtero bezala, Santa Zezilia eguna ospatzeko kontzertua eskainiko du. Kontzertua Udaletxeko arkupeetan izango da, azaroaren 20an, arratsaldeko 19.45ean. Silvia Hernandezek zuzenduko du abesbatza kantu saio honetan.



## • Antzerkla kontzertua eta zinea GazteDwan



Egitarau betea antolatu du *Gazte Asanbladak* asteburu honetarako. Hasteko, ostiralean, hilaren 19an, gaueko 22:30ean, txokolate jana egingo da eta "Detritus corazon" antzezlana izango da ikusgai *Detritus Teatrus* taldearen eskutik. Larunbatean, hilaren 20an, rock kontzertua eskainiko dute *Dksa eta Urkatu* taldeek arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Eta igandean, hilaren 21ean, zine emankizuna,"Gato negro, gato blanco" izenburuko filmea, emango dute 19:00etan. Emir Kusturicaren pelikula hau, serbiar kroaziar parajeetan kokatutako komedia ero eta basatia da. Igande arratsaldea barre algaraka pasa nahi duenak, Gaztetxera joatea besterik ez du, beraz.

## • *Udal filluska Bandainm* kontzertua igandean, hilaren 21ean

Igandean, hilarean 21ean, Santa Zezilia egunaren aitzakian, *Udal Musika Bandak* kontzertua eskainiko du 12:30ean Herriko Antzokian. Egitaraua honakoa izango da: Marquinaren "Certamen Levantino" pasodoblearekin hasi ondoren, Wagner-en Tanhauseren martxa joko dute Elgoibarko musikariek. Jarraian, Vives-en "Dotia Francisquita" fandangoa eta Gonzalez-Grau-ren "Suite Hebraica" doinuak entzun ahal izango dira. Kontzertua, Malandoren "Lastima" martxa-sanbarekin bukatuko da. Herriko Antzokiko saioaren aurretik, goizeko 9:45ean kalejira egingo du *Udal Bandak* eta mezan ere joko du 10:30ean San Bartolome Parrokian, Eguerdiko kontzertuaren ostean, musikoek bazkaria egingo dute Karakate Elkartean.

### ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: P. T. Anderson.
Antzezleak: Gwyneth Paltrow, Phil Baker Hill, C. Relly eta Samuel L. Jackson.

#### "Sidney"

Sidney jokuan aritzen den aditu bat da. Egun baten Jhon-i Iaguntzea erabakitzen du, gazte hau lanik eta dirurik gabe baitago. Elkarrekin duten harremanean, Clementine izeneko pertsonaia agertuko da, tarteka prostituzioan aritzen den zerbitzaria. Gau baten, Sidney-k Jhon-en deia jasoko du eta honek nolako egoera larrian dauden esango dio. Egoera honek erakutsiko digu zergatik nahi dion Sidney-k Jhon-i lagundu.

### FARMAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 20 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Santa Ana kalean) | |
| 21 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Santa Ana kalean) | |
| 22 | Fernandez | Fernandez |
| 23 | Yudego | Yudego |
| 24 | Zabaleta | Zabaleta |
| 25 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Errosado kalean) | |
| 26 | Escala | Escala |

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 943 75 16 38
**J. IGNAC10 FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4,
Garagarza.Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
**21 igandea Zabaleta**




# ez galdu aukera!

oraindik denboraz zabiltza

## zure enpresa, negolo edo dendaren berri

eman nahi izanez gero




**deitu 94314 37 Oit teleforiora**

Denda edo negozioa 1999.urtean ireld baduzu, ez ahaztu guri deitzeaz.



## HYUNDAI ACCENt

EDO BALIO
BEREKO DESKONTUA
*1.381.000 pta.tik AURRERA
(8.299.98 EURO)



## HYUNDAI LANTRA

AIRBAG BIKOITZA OPARI

EDO BALIO
BEREKO DESKONTUA
1.989.000 pta.tik AURRERA
(11.954, 13 EURO)




## HYUNDAI ATOS

AIRBAG-A OPARI

EDO BALIO BEREKO DESKONTUA
*1.130.000 pta.tik AURRERA.
(6.791,44 EURO)

3 urteko garantia edo 100.000 kn.

12 SALTOKI

AUTO EDER BATEN JABE IZAN NAHI BADUZU, ERREPARATU OBJEKTIBO HAUEI. HYUNDAI **ACCENT, LANTRA** eta **ATOS** ORAINTXE DITUZU BEGI-BISTAN. JANTZI ARROPA EROSOA, KIROLERAKO OINETAKOAK ETA ZATOZ HURBILEN DAUKAZUN HYUNDAI KONTZESIONARIORA. ZAIN GAUZKAZU.

HYUNDAI

**Mendaro Autoak**

Elgoibar Olaso, 27 . 943 74 32 00
Eibar · Otaola, 27 · 943 70 13 82
Irun · Pinar, 21 · 943 61 42 00
Beasain · Nafarroa, 45 · 943 88 34 00
Donosti · Zumalakarregi, 1 · 943 31 22 00

BEZEROENTZAKO TELEFONOA: 902 246 902

*Penintsularako eta Balearretarako gomendatutako prezioak. Matrikulazio zerga, garraio BEZa, matrikulazioa, plakak eta promozio deskontua barne. Hyundai Españak eta bere kontzesionario sareak elkarlanean egindako promozioa. Promozioak hil amaiera arteko balioa du stock-ean dauden autoentzat.